


# BERRIGARA

5. zenbakia JARDUN Elkartea Bergara 1994, ekainak 24

## Erretzearen bi aurpegiak

### LARRAÑAGA Autoeskola



Artekale, 22 Tfnoa: 76 16 63 BERGARA

# GIARTZU

DERMOESTETIKA ZENTRUA • GIMNASIOA



LAN ORDUAK: Goizez: 9.00-13.00 • Arratsaldez: 14.30-20.00

**ABUZTUAN ZABALIK!!** (abuztuaren 15etik 20ra itxita)

• Dermoestetika zentrua: 9.00-14.00

• Gimasioa: 8.00-14.00

## Z E R B E R R I D A ?

### ANDONI ARROYO Bergarako Olinpiada Batzordekoa

- Zer nolako erantzuna izan du Olinpiadak orainarte?

- Oraingoz 10 taldek eman dute izena eta aurten 15-20 kuadrila izatea espero dugu, 150 partaide inguru guztira. Jendeari parte hartzeko deia zabaldu nahi diogu eta gogoratu izenematea ekainaren 27an itxiko dela. Kamisetak salgai (1.200 pta.) jarri ditugu eta zuria eta gris kolorekoak bakarrik geratzen dira, moraua agortu egin baita. Uztailaren 23an egingo den herri-bazkarirako 200 bat txartel aterako ditugu eta 700 pta.tan salduko dira.

- Nobedaderik?

- Bai, lehenengo astean probak 5etara au-



rteratu ditugu "Memin"i eskeiniko zaion omenaldia dela eta. Bestalde, uztailaren 10ean "Altxorraren bila" jokua egingo da eta Olinpiadetako abestia, ea lehen egunerako grabatuta daukagun... Azkenik, erlojuaren kontrako proban kanbiorik gabeko bizikleta erabilteza eskatzen da.

**"Aurtengo Olinpiadetan 150 bat partaide izatea espero dugu"**

## I T U R R I O N E T I K

### Udan hobekuntza lanak egingo dira Udal Pelotalekuan

Bergarako Udalak, udan, Udal Pelotalekua hobetzeko lanak egiteko asmoa dauka. Obra hauek beharrezkoak dira Eusko Jaurlaritzaren Joku eta Ikuskizun Zuzendaritzaren araudira egokitu ahal izateko eta, printzipioz, 50 milioi pta.ko aurrekontua izango lukete. Besteak beste, taberna tokiz aldatuko da, errebotea egin eta horren gainean eserlekuak jarri eta pasilluak ere zabalduko dira. Frontoia 3 hilabetez itxita egongo da eta pelota denboraldia urrian edota azaroan inauguratuko litzateke.

## ESAN DUTE

"Azken bolada honetan bideoak ere erabili ditugu gure akatsak zuzentzeko. Normalean Segurako txapelketan parte hartzen duten bikoteak hamar urtetatik dantzan ari den jendea da eta ez dugu hankasartze izugaririk egiten, baina kontua ez da hori, puntuatzeko estiloa depuratu egin behar da eta horrek ematen ditu lanak"

**AMAIA AGIRRE**

Dantzaria  
EGIN

"Ez dago diferentziarik ballet konpainiek eta guk egiten dugun preparazioaren artean"

**EDU MURUA**

Dantzaria  
EGIN

"Defenditzen dugun umoreak zine mutuko aktore komikoen ildotik jotzen du; Charlotten umorearen antzekoa: barre egin arazi baino gehiago hunkitu egiten gaitu eta zergatik ez, pentsarazi. Chaplinen "El gran dictador" edo "Tiempos modernos" asko pentsarazten duten filmeak dira. Umore inteligentea ez da norbaiti barre egitea, berarekin barre egitea baizik"

**VIRGINIA IMAZ**

Aktoresa  
ARRASATE PRESS

Jauregia, 20.570 Bergara.  
eta faxa: 76 03 97

**Elkartzaileak:**  
Elkartea  
Bergara, 13. 20.570 Bergara.

08 19

**Dantzaria:**  
Elorza.

**Elkartzaileak:**  
Azkarate, Eduardo Mendibil eta  
Elkoroberezibar.

**Elkartzaileak:**  
Azkarate eta Eduardo Mendibil.

**Elkartzaileak eta harpidetzak:**  
Azkarate eta Gorka Elorza.

03 97

**Elkartzaileak:**  
Angel Mikeo, Estepan Plazaola,  
Angel Elkoroberezibar, Alex  
Erasen, Iñaki Eraña, Juan Martin  
Erasen, Josu Oregi, Maripi Laskurain,  
Aizelari, Ainhoa Lete, Jon Ander  
Erasen, Mikel Lizarralde, Monika  
Erasen, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa  
Erasen.

**Elkartzaileak eta marrazkiak:**  
Rodriguez, Gorka Ortega, Jon  
Erasen, Jose Martin Ezenarro  
Julian Ezenarro.

**Elkartzaileak argazkia:**  
Cantero.

**Elkartzaileak:**  
Txangorri Taldea.

**Elkartzaileak:**  
3.700 ale.

**Elkartzaileak:**  
Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**Elkartzaileak:** BERRIGARA

**Elkartzaileak:** SS 50/ 91

**Elkartzaileak:** 1130-6599


**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen  
Elkartzailean adierazitako esanen eta iritzien  
antzunkizunik.



Aldizkari honek  
Bergarako Udaleren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Euzko Jaurlaritzako Kultura  
sailaren laguntza jaso du



## Zinea

▼▼ **Walter Hill**  
(48 horas) zuzendariak apache indioen buru izandako *Geronimoren* (**Wes Studi**) leienda berreskuratu nahi izan du. Bere lurak defendatzeagatik, ohorea eta betebeharraren artean zalantzan jarriko ditu Estatu Batuetako Ejerzitoko hiru soldadu (**Jason Patric, Robert Duvall** eta **Gene Hackman**).

▼▼ Hori bai hirukotea **Ann Margret, Jack Lemmon** eta **Walter Matthau** osatzen dutena! Aurrekoetan bezala, **Jack Lemmon** eta **Walter Matthau** (*La extraña pareja* titulua ezin hobeto datorkie) elkar ulertzea ezinezkoa dirudi. Emakume bat (**Ann Margret**) agertuko da beren bizitzan eta, nola ez, haserre batean jarraituko dute...



## Deiak

▼ **Aitor Aranzabalen** "Ekolojia etxean" izenburuko hitzaldia ostegunean 15.30etan Gartzela Zaharrean. JARDUNEk antolatuta.

▼ **Udal Banda**ren kontzertua igandean 12.30etan Espoloian, ondoko programarekin: "El Carloteño" (M. Glez. Bastida), "Las golondrinas" (J.M. Usandizaga), "La alegría de la huerta" (Chueca) eta "Big band in concert" (Lowolem).




## Ogia

▼ **Igandea 26:** Bolintxo.



## GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 25:** Camacho/Trizar.
- ▼ **Igandea 26:** Camacho/Amezua.
- ▼ **Astlehena 27:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Asteartea 28:** Guallar/Morales.
- ▼ **Asteazkena 29:** Estella/Azkoaga.
- ▼ **Osteguna 30:** Mozos/Español.
- ▼ **Ostirala 1:** Camacho.



### GERONIMO

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.



### DOS VIEJOS GRUÑONES

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astlehena: 19.30  
(Ikuslearen eguna).

## ZUBIAURRE aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.  
HORMA ARMAIRUAK.  
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.  
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.  
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

## IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

## JOSEFINA

Espaloia 4, ☎ 76 35 38

## BELENGUA

### Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

## Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

## ETXAGI

Jatetxea

Afariak-Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

**Bergarako** Kultur Etxean jubilatuen margoak eta eskulanak egongo dira ikusgai igandera arte. Enrique Nietok dioskunez, "jubilatutako gehienok oraintsu hasi gara bonelako lanekin eta oso gustora ari gara. Ni esaterako orain 6-7 bat urte hasi nintzen pintatzen (aurretik ez nekien pintatzen) eta pixkanaka pixkanaka gustoa bartzten diozu. Eta etxean ere eskertzen dute, dudarik ez: nere alabak nik egindako 8 koadro dauzka. Beraz, gure lana zertxobait apreziatzen da...".

Astero 3 eskola ordu ematen dituzte Jose Antonio Laskurain irakaslearekin; "3 urte daramatzagu ikastaroetan parte hartzen eta gaur egun 12 lagun gabiltza. Oleoak egiten ditugu gehienbat eta gehienok paisaiak, lorak edota erretratuak lantzen ditugu, beti ere gure irakaslearen gomendioei jarraituz. Oso irakasle ona da eta pazientzia haundia dauka gurekin" azaldu digu Nietok. Bere ustetan inoiz ez da berandu horrelako hobby batekin hasteko: "asko gustatzen zaigu eta gauza bat oso gustoko

# INOIZ EZ DA BERANDU...

## Jubilatuen artea dastatzeko aukera

*Kultur Etxean ikusgai jubilatuen margo eta eskulanak*



Enrique Nieto, Maritxu Errasti, Rosario Jiménez eta Benita Gallastegi, beste zenbait jubilatuekin batera, bere lanen erakusketa daukate Kultur Etxea.

duzunean ordu asko sartzen dituzu konturatu barik". Bere afizio horri eusteko, Jubilatuetako klaseez gain, Kultur Etxean Jon Balentziaga margolariak ematen dituen ikastaroetan ere parte hartzen dute zenbaitzuk.

Eskulanei dagokie-

nez, Ines Elorza legazpiarrik ematen ditu klaseak Jubilatuetan astean 4 orduz. 15 lagun ari dira berearekin lanean eta makateria, makramea, tapizak, lanparak, zeramika..., etab. luze bat lantzen dituzte Jubilatuetako artistek. "Jendea asko gustatzen zaizkio bonelako lanak eta guk, berriz, asko disfrutatzen dugu horrelako gauzak egiten, etxerako apaingarri erabil daitezkeela kontutan izanda gaine-

ra" adierazi digute Rosario Jimenez, Benita Gallastegi eta Maritxu Errastik. Erakusketa honetan dauden hainbat lan salgai jarriko dira, "prezio merkean" artisten hitzetan. Hori bai, oraindik lanean jarraitzeko gogoazal-tzen dute guztiek. Bien bitartean, orainarteko lanekin gozatzeko aukera duzue Kultur Etxean. Astebukaeran goizez 12etatik ordubietara eta arratsaldez 6etatik 8etara egongo da zabalik.

**Hainbat ikastarotan aritutako jubilatuen lanak ikusi daitezke**

**LARREA**

**TABERNA**

Kale Barren 17  
ANTZUOLA

*Carmen Garate*

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

**San Martzialetako sokatira eta matxismoa**

Kaixo lagunok:

Orain dela egun batzuk komunikabideetan argitaratu zen berri batek zer esana ekarri zigun.

Udaleko Jai Batzordeak antolatutako San Martzial eguneko sokatiran parte hartu nahi zuten pertsona guztiek izena eman beharko zutela Kultur Etxean. Gehienez 8 talde gizonezkoak eta lau talde emakumezkoak.

Zergatik gizonen 8 talde eta emakumeen lau?

Zergatik dira txikiagoak emakumeen sariak.?

Emakumeak gutxiago al gara?

Ez al gara Bergarako emakumeak Udaleko Jai Batzordearentzat gizonen-koen berdinak?

Argi dago oraindik "matxismoa" nabaria dela gure gizartean, baina ez dugu etsiko eta gauzak horrela jarraitu ezkererogor borrokatuko dugu.

Aupa San Martzial jaiak!

A.A.

N.A.N.: 34.094.418

**Mundialek baino interes gehiago**

Adin mugarik bareko futbol txapelketaren lehen fasea bukatu da dagoeneko eta final-laurdenak jokatuko dira datorren astean. Noizean behin hurbildu naiz Ipintzara partiduak ikustera eta txapelketari buruz hitz batzuk idaztera ausartu naiz.

Lehenik eta behin esan nahi nuke, Estatu Batuetan jokatzen ari diren Mundialak bezain interesgarria iruditzen zaidala txapelketa hau, aurten federatuek jokatzerik ez duten arren. Hemengo partiduak, behintzat, ordu normaletan jokatzen dira.

Bestalde, Colombiari gertatu zaion bezala, hemen ere aurrez faborito zen talderen bat edo beste kanpoan geratu da. Hor ditugu, esate baterako, Arlotek eta Bildurbarek OPEL-LAM taldeak.

Arbitroen inguruan ere berba egin nahi nuke. Alde batetik, epaile batzuk Diaz Vega bera baino maila hobekoak direla uste dute, marrazainik bariar arbitratu nahi dutelako. Nere ustez sei begik bik baino hobeto ikusten dute. Eta horrela gertatzen dira gero istiluak.

Hala ere epaileen alde ere zerbait esan nahi nuke, jokalaria batzuen ja-

rrera salatzea baita. Arbitroak zerbaiterako daude eta euren erabakiak ezin ditu jokalaria eztabaidatu. Partidu askotan ikusi ditut jokalaria epaileari hitz zatarrak esaten, batzuk gainera oso modu txarretan.

Besterik gabe eta txapelketak interesik galduko ez duelakoan, agurtzea besterik ez zait geratzen. Bergaran Soccerrak bizirik dirau.

J. U.

N.A.N.: 15.278.080

**Tiira biraka**

JULIAN EZENARRO



◆ **Biblioporrak**

Bergarako Udal Liburutegiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz, irakurketa indartzeko *Biblioporrak* izeneko programa jarri du martxan. Interesatuak haur, gaztetxo, gazte zein helduentzako liburu eskeintza zabala daukate Udal Liburutegian, argibide gehiago bertan jaso daitekeelarik.

◆ **Lanbide Hastapena**

Deba Garaiko Mankomunitateak, datorren ikasturteari begira, 16 eta 17 urteko langabetuei zuzendutako Lanbide Hastapena programa kaleratu du. Lehendabiziko aukeran, elektrizitatea, aroztegia eta mekanika ikasteko aukera dago eta bigarrenean, sukaldaritza, artisaugintza eta ofimatika. Interesatuak Udal bulegoetan eman beharko dute izena uztailaren 13a baino lehen.

# Pintadak eta kristal apurketak

## Gobernu Batzordeak larunbat gaueko erasoak salatu ditu

Aurreko astebukaeran hainbat pintada eta kristal apurketa izan zen herriko hainbat tokitan. Udaltzaingoak emandako informazioaren arabera, "Telesforo Aranzadin seinale bat lurretik ebaki zuten eta gure ustez seinale horrekin apurtu zituzten Banco Centraleko 6 kristal". Horrez gain, Epaitegian 6 kristal eta Banco Guipuzcoanon beste 18 apurtu zituzten ezezagun batzuk.

**Pintadak**

Pintadei dagokienez, Gaztetxearen alde eta Eliza zein Justiziaren kontrako pintadak ("Ya! Gaztetxea orain", "Okupa preokupa", "Setien tu si que vives bien", "Jueces farsantes"... etab.) agertu ziren Kruz Gallastegi, Artekale, Irala, Herrilagunak, eta Komenio kaleetan, Plazan, Batzoki inguruan eta San Pedro Parrokian.

Udaleko Gobernu Batzordeak asteleheneko bilkuran, "ekainaren 18tik 19rarteko gauean ondasun publiko eta partikularretan burututako ekintza basatia" salatzea eta "Bergarako herriari ekintza hauen aurrean ez dadila geldik egon eta bere gaitzezpena edo erretxazoa adieraz dezala" eskatzea erabaki

zuen. Bestalde, asteazkenetik ostegunera bitarteko gauean PSE-EEren Egoitzan, Bidekurutzetako Herriko Egoitzan, intsumisioaren aldeko pintadak egin ziren. Bertan "Beloch indulta a torturadores, encarcela objektos" edota "Preso intsumisoak askatu" irakur daiteke.



Argazkian, Epaitegian agertutako pintadetako batzuk.

ARREGUI, E.M.



**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

*Kabutzia*

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

*Siaska*

**Dena zure haurarentzako**

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

HARATEGIA - URDAITEGIA

**Sebastian Imaz**

**Bildotsa, txahala eta oilazkoak**

Harane Erreka, 1  
76 32 67 BERGARA

**ZAPELAITZ**

*Taberna*

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera  
San Lorenzo 25, BERGARA

◆ **San Pedro eta San Martzial jaiak**

Igandean, hilak 26, Udal Musika Bandak alaitutako kalejira izango da goizeko 11 terdietan. Ordubete beranduago, Bandak kontzertua eskeiniko du Espoloian. Ostegunean, San Martzial egunean, goizeko 7.30etan Santa Marinatik San Martzialera igoera egingo da letania erreztatuz, ondoren meza izango da San Martzialen eta jarraian txokolote jana. Goizeko 10etan Jubilatuetatik urbanoan igoera iragarri da, eguerdiko 12.30etan Jubilatuen abesbatzak lagundutako meza, ondoren salda eta ardoa eta jubilatuen bazkaria (txartelak Jubilatuetan 600 pta. ren truke). Arratsaldeko 6.30etan urbanoan jeitsiera izango da. Egun osoan zehar trikitilariak izango dira.

◆ **Taun-Taunen emanaldia Antzuolan**

Taun-Taun txotxongilo taldeak "Makinatu" bere azken lana eskeiniko du gaur, hilak 24, 22.00etan Antzuolako zinean.

◆ **Jubilatuena irteera**

Jubilatuak San Juan de Gaztelugatxera irteera iragarri dute uztailaren 5erako. Irteera goizeko 8etan. Prezioa (bazkaria barne): 2.700 pta.



Edu Muruamendiarrak eta Amaia Agirrek, iaz bezala, Seguran irabaztea lortu zuten.

**Aurten ere txapelak**

*Edu Murua eta Amaia Agirre Seguran garaile*

Amaia Agirre eta Edu Muruamendiarrak bergarar dantzariak igandean Seguran jokaturako Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketaren XVIII. edizioa irabazi zuten, iaz lortutako garaipena errepikatuz. Txapelak Nestor Basterretxearen eskultura bat, urrezko plaka, makila, txapela, 50.000 pta. eta bidaiaria bat eskuratu zuten sari gisa. Era berean Aitzol Ena bergararra hirugarren postuan sailkatu zen Josune Sarriegi hernaniarrarekin batera eta brontzezko plaka eta 35.000 pta. jaso zituzten.

Bestalde, lehen aldiz parte hartzen zuten bikoteen artean Asier Ena bergararra eta Laura Carpintero hernaniarrak irabazi zuten *Guillermo Areizaga* izeneko saria. Guztira 16 bikote izan ziren lehian goiz eta arratsaldeko saioetan.

Basterretxearen eskultura datorren urteko txapelketara arte izan eduki ahal izango dute Edu Murua eta Amaia Agirrek eta hirugarren aldiz jarraian irabaziz gero, beren esku geldituko litzateke (bestela 5 aldiz urte ezberdinetan irabazi beharko lukete).

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZA BIKAINA: 4 gupil erosi eta 2 ordaindu!!**

**Mekolalde**

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A  
U  
T  
O  
A  
K

**KIZKUR**



Ileapaindegia  
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

**SURPE**  
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

**LONBIDE**  
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA





Beka eskuratu ahal izateko 35 urtetik beherakoa izatea ekatzen da.

## Justo Garate Arriola beka

### 1994eko deialdia, Euskal Filologiazko lanentzat

Bergarako Udalak Justo Garate Arriola Bekaren 1994eko edizioaren oinarriak kaleratu ditu. Aurten go beka deialdia Euskal Filologiazko lanei zuzenduta dago, ikerketa lana euskaraz burutuko da, beka-iraupena 11 hilabetekoa izango da eta diruzenbatekoa 935.000 pezetakoa da. Beka hori norbanakoei nahiz horretarako osatutako lantaldeek eskuratu ahal izango dute eta beka jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da 35 urtetik beherako Diplomatuia edo maila bereko tituloduna izatea.

Interesatuak espediente akademiko zehatza eta osatua, Curriculum vitae, eskegileen nortasun agirien fotokopia eta lana nola burutuko luketen adierazten duen memoria aurkeztu beharko dute Bergarako Udaleko Idazkaritza Orokorrean irailaren 1etik 30era bitartean. Beka hau Bergarako alkateak adjudikatuko du, Ebaluaketa Batzordearen proposamena jaso ondoren. Eskegileek aurkeztu duten memoria defenditu beharko dute Ebaluaketa Batzordearen aurrean.

### ◆ Kalebarrengo jaiak Antzuolan

Larunbatean, hilak 25, goizeko 10etan, mendi bizikleta trabesia iragarri da, 12.30etan trikitilariekin kalejira, 15.30etan umeen jolasak, 18.30etan buruhandiak dultzaineroekin, 19.45etan arbola jasotzea, 21.00etan auzo afaria, 22.30etan Hator taldearen erromeria, gauerdian sua eta orduerdi beranduago Sagar dantza. Igandean, diana 10etan, 11.30etan meza, ondoren salda, dantzariak eta txikiteoa dultzaineroekin, 17.30etan asto karrera mundiala eta 7etan sokatira eta trikitilariak.

### ◆ Jaiak Jubilatuetan

Astelehenean, hilak 27, arratsaldeko 4retan merienda Egoitzan eta Jubilatuetako abesbatza, Kikio eta Sagastume soinu-jolearen aktuazioak. 7etan bola txapelketa Jubilatuetan gizon eta emakumeentzat. Asteartean karakol lehiaketa eta dastaketa goizeko 10etan Jubilatuetan, 5etan bingoa, 6etan Elgetako trikitilariak eta 7.30etan toka eta igel txapelketak. Ostegunean 11etan meza, salda eta abesbatzaren aktuazioa jarraian, eta 6etan etiketa dantzaldia. Sariak egongo dira.

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE

## Iturkintz Berri

**INSTALAZIOAK:**

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

**Iturkintza  
Berogintza  
Gasa**

☎ 76 28 04



**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

**JOSE  
LUIS**

eta

**MIKEL**

**URTEAGA, 6**

- Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
- Etxebarruen dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

ZURE ERRENTA  
AITORPENEAN  
DESGRABAGARRIA

HOBE EZAZU ZURE IRUDIA.

Multi $\beta$   
TRATAMENDU ESCLUSIBOAREKIN  
MULTIOPTICASEN BAKARRIK.

Varilux Comfort lente berria, MULTIOPTICASEk bermatutako egokitzapenarekin.  
Dagoen lenterik perfektuena distantzia luze, ertain eta laburrena ikusmen naturala izateko.

## VARILUX COMFORT LENTE BERRIA. IKUSMENIK ATSEGINENA



Lehenago edo geroago...

Naturala, duen ikuspen-eremu zabalagatik, hurbiletik urrunerako aldaketa leunagatik eta buruari eta begiei mugitzeko ematen dien askatasunagatik. Eta gainera, diseinu eksklusibo, moderno eta edergarria.

Lehenago edo geroago Varilux aukeratuko duzu. Ikusiko duzu zein atsegina den.



...VARILUX aukeratuko duzu

## Ezagutu ezazu LILURAn benetako ongizatea



GURE MEDIKU  
ESPEZIALISTEKIN

## ESTETIKA ESPEZIALIZATUA

Mediku homeopatekin elkarlanean jarduten dugu medikuntza estetiko eta prebentiborik eraginkorrena lortzeko.

Etor zaitetz Bidekurutzeta kaleko 7 zenbakira edo deitu 76 31 71 telefonora, goizeko 9.30etatik iluntzeko 8.30etara astegunetan edo 9.30etatik 14.00etara larunbatetan.

Zure edertasuna zure osasunaren pareko delako, biak era pertsonalizatuan zaintzen ditugu.

LILURAn, zeure arazo pertsonala diagnostikatuko dizugu, doan.

# Ohitura zaharrak

## San Juanak

- Nondik dator San Juan eguna ospatzeko ohitura?

- Kristo baino lehena-  
go iadanik lurralde asko-  
tan uda-muga bereziki  
ospatzen zuten, urte-aldi  
oso garrantzitsua zenaz  
jabetuta. Gero Kristautasuna  
horietan sartu zue-  
nean, ospakizun horiek  
beretzakotu eta San Juan  
Apostoluaren izeneko er-  
lijio-kutsua eman zien.

Horiek horrela, egun  
horretan gaur egun uler-  
kaitz edo ziorik gabeko  
iruditzen zaizkigun hain-  
bat alderdik irautea ez da  
bater harriztekoa.

- Eta geure artean,  
noiztik ospatzen ditu-  
gu San Juanak?

- San Juan bezperan  
suak egiteko ohitura Eus-  
kalerrian aspaldi zahar-  
retik datorkigu, nahiz eta  
orain anbiolako esan-  
nahia galdu eta gehien-  
tan erlijio ospakizun bi-  
lakatu den. Herri, auzo  
eta baserrietan suak egi-  
teko ohitura izan da eta  
da.

Bergaran suak egiteko  
ohiturak bizirik dirau;  
neska-mutil taldeek au-  
rreko egunetan paper,

kartoi, egur eta erretzeko  
denak jasotzen dituzte  
eta talde bakoitzak bere  
lur zatia aukeratzen du  
eta, txandaka gordetzen  
dituzte ekarritakoak.  
Ilunkeran su eman eta su-  
garren gainetik salto egi-  
ten dute bata bestearen  
atzetik. Toki batzuetan  
salto egiterakoan honako



**MIRENTXU GOÑI**  
(historiagilea)

hau esaten zen: "Ona ba-  
rrura, txarra kanpora".

- Eta lorak bedeinkatzeko ohitura hori?

- San Juan egunean,  
San Juan ermitan meza

**"Kristo aurretik iadanik lurralde askotan uda-muga bereziki ospatzen zuten, urte-aldi oso garrantzitsua zenaz jabetuta"**



Gaur, ostirala, lorak bedeinkatzeko eguna San Juan ermittan.

izaten da eta apaizak lo-  
re-sortak bedeinkatzen  
ditu. Santa Maritan ere  
bedeinkatzen dira. Lore  
sorta hori lizarra, larro-  
sak, lirioa edo, San Juan  
margaritekin egiten da.  
Etxeko ateetan lizarren  
adarrak jartzen dira;  
arantza zuria ere bai.

- Eta zer diote horri buruz ahoz-ahoz jaso dituzun esaerek?

- Bergaran honako  
ohitura hauek jaso ditut:

"Lore-sorta bedeinkatua gorde eta, trumoa  
edo ekaitza zetorrenean,  
leihora ateratzen zen".

Beste batek esan zi-  
danez, "Gure ama zanak  
etxean norbait hiltzen  
zanean talo-palan brasia  
ipiñi, ta San Juan-sortako  
lora batzuk erretzen zi-  
ttuan kuartuan, aizia al-  
datzeko".

"San Juan goizeko in-  
tza bedeinkatua izaten  
zan"; ala diote.

"Gure amak San Juan  
goizian zelaira bidaltzen  
gintuen, ankutsik intza  
artzera, bedeinkatua ze-  
ola ta ona zala osasune-  
rako eta".

Baita ere, "San Juan  
goizian eguzkia atera au-  
rretik garua ekartzen zan,  
etxeko ataurrean lurrean  
jartzeko".

Eta, "San Juan goizian  
eguzkia atera aurretik in-  
txaur-ostrea biltzen giñu-  
an, gero urtian biar zani-  
an egosi ta artzeko".

**PINTURAS BERGARA**



Aranerreak, 32 behea. BERGARA.  
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO  
PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...

# UDA KANDAINA 94

TENISA, JAZZ DANTZA, ARKU TIRAKETA, PATINAJEA,  
MENDIKO BIZIKLETA, PIRAGUISMOA, RAFTING-A,  
KAINOI JAITSIERA, etab. etako IKASTAROAK.

## UZTAILLEAN

### PREZIORIK ONENEAN

ANIMA HADI ETA APROBETXA EZAK/N AUKERA PAREGABEA!!

LEHEN TXANDARAKO (Uztailaren 4tik 15era) IZEN-EMATEA  
EKAINAREN 30ean BUKATZEN DA!!

ANTOLATZAILEA:  
Bergarako Udal Kirol Zerbitzua



BABESLEA:  
Gipuzkoako Foru Aldundia

## II. AUZOLANDEGIAK IPARRALDEAN


- ✓ Aurtengo auzolandegiak SEASKAk Kanbon duen Xalbador Ikastetxean izango dira.
- ✓ 3 txanda antolatuko dira:
  - Uztailaren 3tik 17ra.
  - Uztailaren 17tik 31ra.
  - Uztailaren 31tik abuztuaren 14ra.
- ✓ Matrikularen prezioa 15.000 pzta.koa da.
- ✓ Izena emateko epea ekainaren 28ra arte.
- ✓ Edozein lan egiten dakien jendea behar da.
- ✓ Goizez lana egingo litzateke 8etatik 12.30etara eta arratsaldez Iparraldea ezagutu.
- ✓ SEASKAri lagundu, Iparraldea ezagutu eta giro jator eta euskaldunean 15 egun igaro nahi badituzu, zatoz berandutu baino lehen JARDUN elkartera edo dei egizu 76 08 19 telefonora.



AGURO IBILI!!

PLAZA MUGATUAK

ANIMA ZAITEZI!!



# Erretzea: zorioneko ala zoritxarreko kea

*Gero eta tabako gorri gutxiago saltzen da estankoetan*

**E**rretzeari lagatzeko formula asko daude. Batetik kuranderoak ditugu, bestetik nikotinazko txikleak. Baina derrigorrezkoa tabakoa uzteko bakoitzaren borondatea da.

Horrela utzi zuen duela bost urte, 43 urte erretzen ibili ondoren, Jose Ramon Elkoroberezibarrak. "Ni bamar urterekin basi nintzen erretzen. Hasieran artobizarrak, basozigarroak, Celtak erretzen nituen eta gero Ducadosak, egunean biru pakete inguru erretzen nituen. Heldu zen momentu bat beti zerbait neukana, burukomina, eztarriko infekzioa... eta medikuarengana joan ondoren erretzeari berehala utzi nion". Ez zen erraza izan zigarroa utzi ondoren sekulako "monoa" izan zuen 6 hilabete-tan eta hilabete batean 8 kilo irabazi zituen. Baina esfortzu horrek merezi izan duela aitortu digu. "Orain aldapak errazago igotzen ditut eta apetito aldetik ere hobeto nabil".



Estanko bakoitzak bere bezero fijoak ditu.

**Erretzaileen aurkako kanpainak azken boladan asko gehitu dira eta horrek, pixkana pixkana, erretzaileen kopurua jeitsi arazi du. Askok zigarroa laga dute, baina beste batzuk oraindik erretzen jarraitzen dute. Datu aipagarri bat ere hor dago: Bergaran urtean 386.400 Ducados pakete eta 105.750 Lucky pakete saltzen dira.**

Juan Antonio Migura DVko berriemalea, askotan ikusi izan dugu ziga-

rrua ahoan zeukala. Baina duela hiru hilabete-tatik hona egunero 2 pakete eta asteburuetan gehiago erretzen zuen kazetari honek ez du erretzen. "Igande goiz baten katarroarekin esnatu nintzen eta erabaki nuen gehiago ez erretzea. 3 hilabete daramatzat erre gabe eta

osasun aldetik ez dut al-daketa handirik somatu".

**Akupunturistak, kuranderoak e.a.ak**

Beste batzuk borondateaz gain beste laguntza batzuk behar izaten dituzte. Hauek akupuntu-

**"Egunean 3 pakete Ducados erretzen nituen"**  
Jose Ramon ELKOROBerezibar

rista, mediku higienista, kurandero, ur imantatua eta mediku espezialisten laguntza behar izaten du. Hori da Xabier Mugika, Jose Ignacio Mondragon, Antonio Astiazaran eta Iñaki Arregiren kasua. Azken honek esan digunez: *"Behobiara joan ginen eta ban, kuranderoak, biru zigarro erre arazi zigun. Lehen osoa, bestea erdia eta azkena bokilarik gabe. Horren ondoren aparatu batekin belarrrian ikutu batzuk eman eta orain hilabete bat erre barik daramagu laurok. Eskerrak! hiru minututan izan ginen kontsultan eta 7 mila pzta. kobratu zizkigun"*.

**"Kontrabandoak kalte estankoei"**

Tabakoaren beste aurpegia tabako saltzaileena da. Guztira 5 estanko daude gure herrian eta San Pedro kalean dagoen Azkarateren kasuan 43 urte daramatza tabakoa saltzen. *"Lehen tabako beltza zen gebien saltzen zena. Baina orain tabako gorria saltzen dugu gebienbat"*.

Herriko estanko guztietan galdetu ondoren gehien saltzen den tabakoa Ducadosa da eta tabako gorriari dagokionez Lucky da gehien saltzen dena. Nahiz eta guztiek aipatzen digutenez, *"orain 145 pztatan saltzen diren tabako gorri*

**"Hilabete daramagu erretzeke. Eskerrak!, hiru minututako kontsultan 7.000 pezeta ordaindu genuen"**

**Iñaki ARREGI**

*berriek arrakasta dute. Batez ere jende gazteak erosten du. Halere kontrabandoko tabako gorriak min haundia egiten digu"*.

**Kanpainek eragin eskasa**

Azkenaldian erretzearen kontrako kanpainak asko ugaltu dira. Baina horrek salmentetan ez du eragin handiegirik izan. Puroei dagokienez Fariasa da gehien saltzen dena

eta gero, Montecristoa. Azken hau lehen gehiago saltzen zen, baina orain, krisia dela eta, puro batek 500 pzta. inguru balio dituenaz, Montecristoa gero eta gutxiago saltzen da. *"Batez ere Pazkuetan edo zerbait ospatu behar denean saltzen ditugu Montecristoak"*. Puro txikiak, Rosslia, Entrefinoak eta horrelakoak, azken urteetan salmentetan asko igo dira.

Beraz, lehen aipatu bezala, Ducados eta Lu-

cky dira salduenak eta estanko guztietan galdetu ondoren, datu hauek ateratu ditugu: urteko Bergaran 20 zigarroko 386.400 Ducados pakete saltzen dira eta 105.750 Lucky pakete.

**"Bazkal osteko puroa kendu ezker..."**

Maximo Gallastegi, Jesus Manso, Maximo Hernandez eta Santiago Agirrebarrena lasai asko harapatu ditugu bazkal os-



Argazkian, Maximo Gallastegi, Jesus Manso, Maximo Hernández eta Santiago Agirrebarrena.

**BERGARESA**  
**MARMOLERIA**  
**PEDRO SALEGI OSA**  
 Sukalde eta bainu enzimarak  
 Uriarte 8, BERGARA  
 ☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

**KALEGOI, 19** ☎ 76 64 07  
*Tomas Gezalaga*  
**ANTZUOLA BERGARA**  
 • Apainketarako eta industriadarako pinturak •  
 • Papel margotuak •  
 • Mokatetarako eta tapizatuak •

**BOLINTXO**  
**Okindegia**  
 San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
 Ibarrekruz 4 EIBAR  
 ☎ 79 63 42 ARRASATE



Fariasak dira gehien saltzen diren puroak, nahiz eta puro txikiak (Rosli, Entrefinos...) gero eta gehiago saltzen diren.

"Beti gastritis kronikoa-  
rekin nenbilen eta 8 egun  
ospitalean izan nintzen.  
Ettxera joan eta urtebetez  
erretzeari utzi nion. Urte  
horretan 15 kilo irabazi  
nituen eta atzera erre-  
tzen hasi, eta 6 hilabete-  
tan 15 kiloak galdu nitu-  
en".

Manso eta Agirreba-  
rrenak ez dute tabakoa-  
rengatik osasun arazorik  
izan. Askotan tabakoaren  
aurka daudenek aipatu  
izan dute erretzea bizio  
bat dela. Baina erretzai-  
leentzat tabakoa "plaze-  
rra" da. "Niretzat plaze-  
rra da. Bazkal osteko pu-  
roa kendu ezker..." dio  
Mansok. Beste hirurek  
Mansorekin bat egiten  
dute, bazkal osteko  
puroa, hori bai kafea eta  
koparekin lagunduta,  
"munduko gauzarik  
onena da".

tean musean jokatzeko eta  
eskuartean bakoitzak be-  
re Fariasa duela. Ke arte-  
an egunean zenbat erre-  
tzen duten galdetu diegu.


Gallastegik Winston  
pakete bat eta bi Farias  
erretzen ditu. Mansok hi-  
ruzpalau zigarro, Duca-  
dosak, eta 3 farias. Her-  
nandezek, oster, bazkal  
ostean Farias bat eta BN  
pakete bat. Azkenik Agi-  
rrebarrenak zigarro pake-  
te bat eta hiru puro erre-  
tzen ditu egunean. Her-  
nandez izan zen lehena  
erretzen hasten, 12 urte-  
rekin. Gallastegi 17 urte-  
rekin hasi zen erretzen  
berak dioen bezala "be-  
netako" tabakoarekin.  
"Nik tabako Gener de Li-

bra, Fidel Castrorena,  
erretzen nuen. Lehen  
"txortaka" hartzen genu-  
en, 10 zentimotan txortia  
eskuratzen genuen.  
Orain arte -Gallastegik  
72 urte ditu- beltza erre-  
tzen nuen, baina duela  
3 urte Winston erre nu-  
en eta orain tabako go-  
rria gustatzen zait".

**Osasunarentzat  
kaltegarria baina...**


Frogatuta dago taba-  
koa ez dela batere ona  
osasunarentzat eta lau  
erretzaile amorratu ei osa-  
sun arazorik izan duten  
itaundu diegu. Hernan-  
dezek eztarria batzutan  
hartuta izaten duela ai-

patu digu eta Gallastegik,  
berriz, zera esan digu:



Jose Ramon Elkoroberezibarrek 43 urte erretzen ibili ondoren,  
duela 5 urtetik utzi dio.

**BERGARA BOLTSAK**



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66


BERGARA

# Erretzailea zara? Ze iritzi daukazu erretzeari buruz?



**Dorleta Mendibil**  
23 urte, langabetua

Bai erretzen dut, 18 urterekin hasi nintzen. Begi onez ikusten dut toki publikoetan erretzen ez uztea, baina tabernetan lagatzea ondo dago.



**Juan Maria Corral**  
45 urte, langilea

Puroak bakarrik erretzen ditut, fariasak, zigarrorik ez. Osasunerako eta, batez ere, poltsikorako kaltegarria da eta ez genuke erre behar baina...



**Jaione Otaño**  
39 urte, langilea

Ez dut erretzen eta ez dut sekula erre. Nire alabak erretzen du, baina ez dut begi onez ikusten erretzea, osasunerako kaltegarria da eta.



**Garikoitz Lete**  
22 urte, langilea

Astebukaeretan bakarrik erretzen dut, eta asko gainera, gehiegi... Astean zehar ez dut erretzen.



**Ana Belastegi**  
15urte, ikaslea

Ez, ez dut inoiz erre, behin edo behin tentazioa eduki izan dudan arren. Batzuetan molestatu egiten dit aldamenean ditudan erretzaileen keak.



**Fermin Salaberria**  
64 urte, jubilatua

Duela gutxira arte erretzailea izan naiz, baina orain ez dut erretzen. Toki publiko batzuetan izan ezik, ez lukete erretzea debekatu behar.

# Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.  
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

**PHILIPS**



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100  
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K  
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,  
ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK,  
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK


SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

**SONY**

TB, BIDEOAK, KAMARAK,  
HI-FI EKIPOAK,  
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96





## Norvegia

**EHNE** eta **NBS** (Norvegiako baserriarren sindikatuak) antolatutako bidai baten parte hartu dugu. Astebetean zehar, baserri giroa zein kale giroa biziz Norvegia ezagutzen aritu gara.

Eguna oso luzea, gauak ez du irauten 2 edo 3 ordu baino gehiago, ordu gutxi eta iluntasun nabarmenik gabe. Gau pasa egitea oso erreza da.

Gure janarien artean errenoa, altzea, izokina... edateko berriz baserrietan bertan egindako garagardo ezin hobea.

Natura oso berezia da. Argi indarra oso merkea, daukaten ur ugaria aprobetxatzen dutelako, negu luzeak pixkat arintzeko ere mesedegarria dena. %60a basoa da, urki eta pinuz beteta. Landarerik ia ez da sartzen, arbola berriak sortzen dira ta naturaren laguntzaz. Baso jabe bakoitzak 10 urterako plana aurkeztu behar du, non bere antolamendu ikuspuntua agertu behar duen.

Fruta arbolen sailean gerizak hartzen dituzte, landara txikiak mantenduz eta toldoz estalirik izanik negu luzean zehar. Eta hau gaitzago da sinestea fiordo berdinean inoiz urtzen ez den elurra, glaziarra, dagoenean.

Ia ez dute pestizidarik eta beste äntzerakorik erabiltzen neguko tenperatura hotzak nahikoa direlako gaixotasun askoren aurka eragiteko. Baserri eta gainontzeko emakumeen arazoetaz ere zerbait gehiago ikasi genuen. Bestalde, baserriak txikiak dira hamengoak bezala.

Lortua duten oreka orain arriskuan aurkitzen da Europako Batasunean sartzen badira, azaroak 28ko erreferendunean erabakia hartuko dute, gure **NBSko** lagunen ustez etorkizun iluna izango du Norvegiak, hori dela eta Ezaren alde borrokatuko dutelarik. Sorte onena opa diegu!

**Amaia ZABALETA**



## Oilarraren promesa

Azken zurrumuruak esaten dabenez oindiokan ez da Maltzaga-Urbina autobidea martxan jarriko. Europako Elkarteko Ingurugiro eta Berrikuntza-Garapenerako Nazioarteko Bankuak, Nazioarteko Diru Fondoa eta Berrerarikuntza eta Garapenerako Banku Europarraren aprobaziñarekin gelditzia erabaki dabe.

Arrazoiak honek ei die:

- Garapena zer dan ondo aztertu bihar dala. Garaipena alde batera lagakou. Ardatz Atlantikua eta Lisboa-Estokolmo ardatza argi xamar egon arren, Tarifa-Etxalar, Gandia-Mutriku eta Badajoz-Sopela ardatzak ez daela bape argi. Ez da harritzekua.

- Herri bakoitzeko biztanle danak hartuko dabela parte IGPn (Interbentzio Gune Partehartzaileak). Ein dan lehenengo proba hau exitua izan danez, bai interbentziñua, bai gunia ta bai partehartzailiak gehittu eta zabaldu nahi ditzuzke (hori bai oinguan kasu geitxuau eingo jakue). Hemendik aurrera problema asko ta asko bide honetatik konponduko diela esaten da.


- Trenbide zaharra martxan jarriko dabela. Argi ez daona da Abixada Haundiko Trena (TAV) izango dan ala Vasco-Naparra. Argi dao.

- Merkaian hain ondo saltzen dien Turbo-Injection GT/XL-ak ez daukela etorkizunik denbora gutxi barru etarako daben Kusik-Omega kotxiekin. Lastima. Merkaia merkaia da.

- Badie beste arrazoi mordo bat, baina tira, hasteko ez dao gaizki. Eskerrak gure etorkizuna eta "garapena" esku onetan dauanai, bestela akabo!!

Ozaetako aitxixak esaten zeban moduan: mierda jodida!!

**Joxe LAZKANO**



Bizkaia Etorbidea, 1  
etxabea

**Elena**

Tfnoa: 77 14 24

**FS** foto sistema **ARBENIS**

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



**Igeritokietan**

Horra hor Udalak uda partean **Agorrosingo igerilekuetan** lan egiteko kontratatuko lan-gileak. Aste honetatik aurrera lan dexente izango zuten, larunbatean zabaldu eta dagoeneko jende ugari hurbildu baita egunotan igerilekuetara eguzkia hartu, *moreno* jarri eta busti bat hartzeko asmoz. Argazkian, ezkerretik eskumara, Aitziber Zabaleta, Nerea Lazpiur, Beatriz Astigarraga, Yolanda Garcia, Moises Pildain

eta Mirari Lazkano. Argazkian losu Luarizaristi eta Izaskun Oteo falta dira.

**Norvegian zehar**

**Maite Aristegi eta Amaia Zabaleta** (argazkian eskuman, zutik eta makurtuta) **EHNE sindikatuak** Noruegara antolatutako bidaian izan dira aurreko astean. EHNE sindikatuak **NBS Noruegako sindikatuarekin** harremanak dauzka eta bertako nekazal esplotazioak eta baserri giroa aztertzen izan dira hemendik joandako 30 bat lagun. Guztiak liluratuta geratu dira han jasotako harreraz... eta etxeko garga-gardoaz, Berrigarak jakin ahal izan duenez. Datorren urtean noruegarrek Euskal Herrira etorriko dira EHNEkoek egindako bisita itzultzeko.



Esperientzia aberasgarria bizi dute Maite eta Amaiak Noruegan.

**LARRAÑAGA  
eta ZUBIA**

**Banatzailleak**

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

*antzinako gauzak  
dekoratzeko ideiak*

**Rincones**

*dekorazioa*

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxa: 76 52 98



**Ikasturte amaiera**

Astelehenean, Zabalotegiko aretoan, ikastaro amaierako kontzertua eskeini zuten **Musika Eskolako ikasleek**. Aretoa toperaino zegoelarik, guztiek beren maila erakutsi eta piano, tronboi, saxofoi, klarinete... etab.ekin ondo baino hobeto frogatu zuten ikasitakoa, besteak beste, Bizet, Chopin, edota Debussy-ren lanak eskeiniz. Goiko argazkian, txikien taldea "Urbiako pottoka" izeneko kanta eskeiniz Maria Jesus Ugalde irakaslearekin batera. Ikus daitekeenez, ikasleak erabat girotuta etorri ziren txapel dotore eta guzti... Behean ikasle bat pianoa jotzen.



**Zertan dibardute ba?**



**Iñaki Aspiazu** 39 urteko arkitektu bergararrak, Javier Botellarekin batera landutako Gasteizko Justizia Jauregia inauguratu zen asteazkenean, besteak beste, Jose Antonio Ardanza lehendakaria, Belloch Justizia ministroa, Pascual Sala Justizia Kontseiluko presidentea edota Recalde sailburua bertan zirela. Edifizio honek 27.000 m2ko azalera du eta Gasteizko epaitegi guztiak bateratuko dira bertan. Epaitegia "edifizio intelijente" horietakoa litzateke; ordenadore zentral batek edifizio osoaren kontrola eramango du. Iñaki Aspiazu Gasteizen bertan bizi da gaur egun.

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8 Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

**BERGARA**  
**Karrozeria**

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

# Marijo Juaristi

**Klarinete ikasketak amaitzear dago Marijo Juaristi 29 urteko bergararra; 7 urte daramatza Musika Eskolako klarinete irakasle eta 11 urterekin Udal Musika Bandan hasi zen jotzen.**



*"Mozart asko gustatzen zait eta pieza bat aukeratzekotan, Weberen Concierto n° 2 aipatuko nuke. Aktoreen artean Paul Newman gustatzen zait. Oporretan nora? Ez dakit, normalean azken egunean erabakitzen dut eta"*

- Konpositore bat.
- Mozart, askoren artean.
- Piezarik gustokoena?
- Concierto n° 2 (Weber).
- Kontzertuak Espoloian ala Novedadesen?
- Novedades egokiago, baina Espoloia erosoagoa.
- Oraingo kantari bat?
- Peter Gabriel.
- Irakurritako azken liburua?
- Exhibición impúdica (T. Sharpe).
- Non erosten dituzu arropak?
- Bergaran.
- Egunean, zenbat aldiz ispilu aurrean?
- Behin, goizean.
- San Juan suak ikusiko dituzu?
- Bai.
- Eta zu zerk jartzen zaitu sutan?
- Injustiziak.
- Konpondu daiteke?
- Borondate onarekin beharbada.

- Oporretako bidaia, agentzia batek ala zuk prestatuta?
- Nik neuk.
- Eta nora?
- Azken egunean erabakitzen dut.
- "Puenting"a egingo zenuke?
- Bai.
- Artista bat.
- Karl Leister klarinetista.
- Aktore bat.
- Paul Newman.
- Pelikula bat.
- La reina de Africa.
- Aldizkari bat.
- Lápiz.
- Janari bat.
- Txipiroiak.
- Sukaldari ona zara?
- Baaaai...
- Txapuzoi bat ala eguzki bainu bat?
- Elkarren osagarri dira.
- TB aurkezle bat?
- Carmen Sarmiento.
- Gizon batengan zer apreziatzen duzu gehien?
- Intelijentzia, egizaletasuna...
- Zenbat zigarro egunero?
- la pakete bat.
- Berba egin ala entzun?
- Biak. Oso berritsua naiz...
- Zubizarreta ala Cañizares?
- Ez ditut desberdintzen.
- Mundialarekin aspertuta?
- Ez dut ezer ikusi...



## IRAKASLE ESKOLA


Magisteritza Eskola honek zera jakinerazten du:

**1994-95 ikasturterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela**

Ikastetxe honek Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: ingelesa
- Hezkuntza Musikala

Informazioa:  
IRAKASLE ESKOLA ☎ 943 / 71 41 57  
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)




**zumelaga**

**JATETXEA**


**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5  
**BERGARA**  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## *Galde debalde*

**LOREA ZABALETA**

Aurreko Galde Debalden Ozaeta jauregiari buruzko galdera egin genuen. Hain zuzen ere, azken hilabeteetan berrizten ari diren dorretxean zein jatetxe egiten ari diren galdetzen genizuen. Erantzuna: **Lasa Jatetxea** zen.

**LOREA ZABALETAK** jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **BERRIGARA ASTEKARIAK** emandako saria. Zorionak **LOREARI** eta besteok segi jokatzeko, ea hurrengo suerte gehiago duzuen.

**SANTOS**  
**IRRATI-TB**

**SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA**

**Koloretako TB, bideoa, soinua,  
elektragailuak, antenak, sukaldeak  
altzariak, argiztapenak...**

Masterreka 2, BERGARA  
Tfnoa eta faxa: 76 26 10



**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



LOREA ZABALETAK jaso du aste honetan BERRIGARAK emandako saria.



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Azken asteetan eguraldi eguzkitsua izan dugu. Tenperaturak gora egin du. Jertseak eta neguko arropak gorde ditugu eta manga motzeko alkandora eta nikiak jantzi ditugu. Kanpoko pizinak ere zabaldu dituzte..., udan gaude eta. Aste honetan bertan sartu gara udan, asteazkenean hain zuen ere. Ezetz asmatu aste honetako galdera...

## Asteazkenean ze ordutan sartu ginen udan?




izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



# IPINTZAKO

## nagusiendako III. futbol txapelketa

### A multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
MONGATXURRA	5	3	2	1	0	7	3
TXIPIRON	3	3	1	1	1	3	3
ALTOS PORNOS	2	3	1	0	2	7	3
BILDURBAREK	2	3	1	0	2	3	11

#### emaitzak

MONGATXURRA • ALTOS PORNOS  
BILDURBAREK OPEL-LAM • TXIPIRON

2 1  
2 1

### B multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
PAOK S. JUAN	6	3	3	0	0	11	3
OSINTXU	3	3	1	1	1	8	2
OS JARDINEIROS	2	3	0	2	1	5	7
Q-3	1	3	0	1	2	2	12

#### emaitzak

OS JARDINEIROS • PAOK DE SAN JUAN  
OSINTXU • Q 3

2 4  
6 0

### C multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
OGIZUN	6	3	3	0	0	10	4
AMILOTX	4	3	2	0	1	9	3
A ZE FLAXA	2	3	1	0	2	7	6
UFALA	0	3	0	0	3	3	16

#### emaitzak

A ZE FLAXA • AMILOTX  
OGIZUN • UFALA

0 2  
5 1

### D multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
ANGIOZAR	4	3	1	2	0	6	4
PIKAPIEDRAS	3	3	1	1	1	5	6
EZINLEIKE	3	3	1	1	1	5	6
ARLOTEAK	2	3	1	0	2	4	4

#### emaitzak

ARLOTEAK • ANGIOZAR  
PIKAPIEDRAS • EZINLEIKE

1 3  
4 2

### • pardiuduak •

Astelehena, 27

19.30: MONGATXURRA-OSINTXU

Asteartea, 28

19.30: OGIZUN-PIKAPIEDRAS

Asteazkena, 29

19.30: TXIPIRON-PAOK SAN JUAN

Osteguna, 30

19.30: AMILOTX-ANGIOZAR

### • komentarioa •



Andoni AZULA

"Gustora hartu dut Arloteak taldearen kanporatzea, selekzio bat egin nahi izan dutelako batipat. Bestela, ez dut uste final laurdenetan ustekaberik izango denik. Amilotx da nere faborittoa eta gero Ogizun. Mongatxurra ahul xamar ikusi dut baina azkenean ziuurrenik aurrean izango da. Finalerdietan, berriz, ikusi egin behar zer nolako kanporaketak izaten diren..."

### • golegileak •

4 GOL:

• Iban Agirrebeña (Altos Pornos)

3 GOL:

• Saez De Maturana (Amilotx)

• Bittor Jimenez (Altos Pornos)

• Iñaki Azpiazu (Os Jard.)

• Xabier Elkoro (Paok)

• Santi Fernandez (Ogizun)

2 GOL:

• Arroyo (Mongatxurra)

• Nieto (Amilotx)


• Iñigo Pagaldai (Angiozar)



**Ostiralean Kultur Etxean egin zen Bergara K.E.ko Batzar Orokorrean, bazkideek (15 bat lagun bildu ziren eta elkarteak 480 bazkide ditu) Zuzendaritza Batzordearen jentio ekonomikoa onartu zuten aho batez.**

Iñigo Zaitetik zuzentzen duen batzordeak jakitera eman zuenez, aurtengo denboraldian 18 milioi pzta. inguruko aurrekontua aurrikusita zegoen eta defizita 700.000 pta.koa izan da. Aurretiko zorra 5 milioi pzta.koa omen da eta Zuzendaritzaren helburu nagusia, hemendik 3 urtera taldea uzten dutenerako, zor hori milioi t'erdi pzta.tara jeistea litzateke.

Defizita nola eman den azaltzeko orduan, Bergara K.E.ko kideek Udalaren dirulaguntzaren jeitsiera azpimarratu zuten, aurreko urtearekin konparatuz 1.300.000 pzta.tan jeitsi baita. Bingen Mendizabal diruzainak Udalak dirulaguntzak banatzeko erabiltzen duen sistemarekin Bergara K.E.ko ordezkariak ados ez daudela jakin arazi zion Batzarrean zen Xabier Zabaleta kirol zinegotzari. Era berean, sail ezberdinek aurrekontura egokitzeko egin behar izan duten esfortzua eta instalazio ezberdinen mantenimendu gastuen igoera azpimarratu zen.



Diru kontuak nahi bezain ondo ez badoaz ere, Bergara Kirol Elkarteak sail ezberdinetako taldeek denboraldi borobila burutu dute.

# Oneritzia jaso zuen Iñigo Zaitegiren lanak

*Bergara K.E.ko zuzendaritzak urteko balantzea egin zuen*

Diru sarrerei dagokienez, elkarteak zuzendariek bazkide kuotei esker jasotako diru kopurua baija dela adierazi zuten.

### Bazkide kanpaina

Honekin lotuta, herriko enpresa eta komertzio mailan bazkide kanpaina bati ekin nahi dio Bergara K.E.k. Bestalde, bazkideen kuotak ez dira igoko eta Bergara K.E.rekin parte hartzen duten kirolari guztiek 2.500 pzta. ordaindu beharko dituzte datorren denboraldian: "Beste herri batzuetan ere

ordaintzen dute eta kontutan hartu behar da, gainera, azterketa medikuak hori baino gehiago balio duela"

Kirol balorazioa egiterakoan, guztiak bat etorri ziren amaitu berri den denboraldian lortutako emaitza bikainekin. Luis Mari Gutierrez pelota sailko arduradunak Deba Arroko Txapelketan lortutako garaipenak, Iker Muruamendiarezek irabazitako Euskadiko Txapelketa eta Herri Arteko Txapelketan eskuratutako 3. postua gogoratu zituen.

Futboleko, preferente mailako taldea 4. postuan sailkatu da, infantilak igoera lortu du eta, nobedade gisa, hurrengo denboraldian nesken futbol taldea kompetiziotan hasiko dela.

Eskubaloian, berriz, Iñaki Canterok azpimarratu zuen senior taldeak lortutako 2. mailara igoera. Eta saskibaloian, Jose Ignacio Familiarrek adierazi zuenez, "denboraldi honetan saila sendotzea izan da helburua, baina datorren urtera begira senior gizonetzkoen talde bat osatu nahi da".

**Garnish**  
**Bitxitegia**  
San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

**REMENTERIA**  
**Altzariak**  
Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak  
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

• Zaharrei kasu egin eta laguntzeko zerbitzua, jende ikasiz osatua  
**LAGUN ZAHARRAK**  
• Edozein lan-ordu eta ekonomi-mailatara moldatzen gara  
☎ 76 46 26 / 76 18 54  
**ORDUTEGIA: 12.00-13.00 / 21.00-22.00**



Labegaraietako Futbito Txapelketako antolatzaileek jakin arazi dutenez, 94-95 denboraldiko txapelketako izen-ematea uztailaren 27ra arte izango da zabalik Bergara K.E.ko bulegoetan. Txapelketa udazken aldera hasiko da. Talde bakoitzak ordezkari baten izena eta telefono zenbakia eman beharko du. Jokalariak 16 urtetik gorakoak izatea eta federatuta ez egotea eskatzen da.

**KIROL JAIA**

Uztailaren 2an II. Denontzako Kirol Jaia jokatu da Oñatiko Zubioa Kiroldegian, arratsaldeko 3etatik 6etara. Bergararik, Aspace, Aransgui, Gureak eta Kateako ordezkariak izango dira.

**NESKEN FUTBOLA**

Larunbatean Kiroldegian jokatu da nesken futbito txapelketako finala, arratsaldeko 5.30etan, Bulldogs eta Notxingan Floresen artean. 4.30etan, Hamaikak eta Gutxi eta Sinatrak-Tip taldeek hirugarren postuaren bila lehiari arituko dira.

# Lokatzako jubenilak

## Gipuzkoako V. Itzulian

**Lokatza** Ziklismo Eskolako Sumofic eta Señorio de Ojeda jubenil taldeak ostegunetik igandera bitartean jokatu den Gipuzkoako Itzulian parte hartzen ari dira. Atzoko Alegiko prologoaren ondoren, 3 etapa bete beharko dituzte Lokatzako txirindulari gazteek: Segura-Segura (91 Km.), Olaberria-Olaberria (89) eta Andoain-Andoain (90). Etapa ezberdinak amaitutakoan Lokatzako txirindulari eta entrentzaileek Elosun egingo dute kontzentrazioa.

Goiko argazkian, ezkerretik eskumara, Señorio de Ojeda taldea: Mikel Larrañaga, Oscar Medina, Gotzon Mendizabal, Aritz Larrañaga, Arkaitz Loizaga, Aitzol Arregi, Angel Ezkurra eta Alex Sánchez (argazkian Juanito Molina falta da).

Behean, Lokatza Sumofic taldea: Mikel Lazpiur, Iker Larrea, Arkaitz Mendizabal, Ioseba Larrañaga, Ander Markiegi, Beñat Aiastui, Aitor Larrea eta Xabier Barkero.

Bestalde, igandean 16.30etan lehen urteko kadeteen San Martzial saria jokatu da. Proba Ibargarain amaituko da.



Goiko argazkian, Mikel Larrañagaren Señorio de Ojeda taldea eta behean, berriz, Mikel Lazpiurren Lokatza Sumofic.

**AGENTZIA:**  
**J. ELKORO**

Ibargarai 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

Taberna Kafetegia

**EHIZTARIAK**

**LOS CAZADORES**

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA



## Batxilergo Institutuko ikasleak

**O**rain dela 14 urte ateratako argazkia, 79-80 ikasturtekoa duzue honakoa, Imanol Iriagarai Institutuan osatu zuen bilduma haundikoa. Klasera azaldu, denak bildu eta klik! Bigarren kurtsoan zebiltzan hauek garai hartan, 2. B-n.

### Ezkerretik eskumara:

**Aurreneko ilaran:** Aintzane Ugalde, Maria Angeles Padilla, Maria Antonia Martin, Edurne Labaka, Mila Lopez, Marije Lopez, Maripi Laskurain, Irene Mujika eta Amaia Linazisoro.

**Erdiko ilaran:** Miren Linazisoro, Dorleta Agirre, Elena Albisua, Mariasun Akizu, Olatz Agirreolea, Eli Agirre, Maite Aginagalde, Gentzane Alzelai, Begoña Almeida, Emilio (irakaslea), Ana Isabel Ugalde, Yolanda Miner, Aintzane Arana, Izaskun Pardina eta Iñaki Acedo.

**Azken ilaran:** Martin Arriaran, Roman Zeziaga, Alberto Biana, Arantzazu Aranzabal, Maika Aranzabal, Xabier Arraiago "Curro", Juan Luis Agirre "Txiki", Agustin Larrañaga, Jose Angel Arriaran "Pierro", Iñigo Urrutia, Josune Iza, Cristina Rodriguez, Jesus Mari Kalboetxeaga, Juan Carlos Cusi eta Iñigo Azkarate.

*Amaia Agirre*

*Argazkia: Imanol Iriagarai*

**SUBIJAI**


Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

**LETE**

**TOLDOAK**

Zubieta, 36 ☎ 76 12 24  
☎ 76 23 83 ARRASATE



Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**ETXEBIZITZA**

**Estudio** bat alokatzen da **Benidormen**. Hondartzatik gertu. ☎ 76 23 43.

**Garajea** salgai Torreku-an. ☎ 76 18 82.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Pisua** salgai Bolu 18an. 120 m<sup>2</sup>. ☎ 76 19 17.

**Pisua salgai** Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

**Garajea** hartuko nuke **alokairuan** Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Oporrak** Zarautzeko etxe batetan igarotzeko aukera. ☎ 13 28 49.

**Pisua salgai** Martokon. ☎ 76 14 60.

**Pisua salgai** Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

**Pisua salgai** Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

**Matxiategin** pisu amueblatua alokatzen da. ☎ 76 46 15

**Pisua** alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

**Garajea salgai** Ibargarain. ☎ 76 36 69.

**Pisua** alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 11 89.

**Garajea salgai** Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**DENETARIK**

**Sango remolke** bat salgai. Egoera onean. ☎ 76 61 74.

**Opel Kadett** 1800 salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

**Donostian** (Grosen) pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 29 11 10 (Bego).

**Txakur Alsaciano** bat oparitzen da. ☎ 76 31 28.

**Edertze aretoa** traspasatzen da. ☎ 76 58 88.

**Kanpin denda** (2 gela eta portxea) salgai. 2 urte. ☎ 76 58 12.

Paseozko Torrot **bizikleta** salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

**Schnauzer** txakur-kumak salgai. Pedigreedunak. ☎ 76 48 52 (Xabier).

**Sambo kanpin karroa** salgai. Osagaiekin, egoera onean. ☎ 74 19 39 (Marisol edo Marian).

**Boxer** txakur-kumak prezio onean salgai. Pedigree benetan aipagarria. ☎ 945-284271 (Luis Mari).

**Vespa 200 TX** beltza salgai. 1.600 Km.. ☎ 76 53 12.

Alfa Romeo 33 SS-AB **ko-txea** salgai. ☎ 76 02 01.

"**Cassio**" erloju beltz bat galdu dut Ipintza inguruan. ☎ 76 38 71.

**Sango** kanpin-erremolke (2 logela) salgai. 150.000 pta.. ☎ 76 39 93.

**BMW** motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

**Bilbon** pisua konpartituko nuke. ☎ 76 61 68.

**LANA**

**OHO** eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 17 85 (Asier).

**Zaharrei** kasu egin eta laguntzeko zerbitzua eskaintzen dizugu. ☎ 76 46 26 / 76 18 54. (Eguerdiz eta gaeuz)

**Jende heldua** zaindu eta etxeak garbituko nituzke. ☎ 75 24 47 (Loli).

**Ingeles klaseak** ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**OHO** eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 44 34.

**Ingeles Filologian** lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Klase partikularrak**. ☎ 76 50 67.

**OHO** eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

**Egunkariko** akzioak saltzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 08 19.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Ingeles Filolojiako ikasle batek **ingeles klaseak** emango lituzke. ☎ 762663.

**Hildakoak**

*Benita Unamuno Mujika*  
ekainak 15, 89 urte

**Jaiotakoak**

*Aste bonetan Epaitegian ez da jaiotakoen berri jaso*

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

**Aldoka**  
**Maldoka**

**TABERNA**


Kruz Gallastegi, BERGARA

**ZUBIETA**  
**elektragintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

# ONDO PASA

UDA HONETAN



## 1994ko UDA IKASTAROAK

- Ekainaren 30etik uztailaren 28ra
  - 5 ordu goizez
- Maila guztiak: Euskalduntzen, Alfabetatzen, EGA.
- Prezioa: 7.000 pzta. (materiala barne).
  - 16 urtetik gorakoentzat.
  - Informazio zehatzagoa:

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA. Zabalotegi, 13 behea. ☎ 76 44 53